

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoko kideei harrera egin die

Elkargoko Gobernu Batzordeko kide berrien izendapenaren harira egin da topaketa

Asteazkena, 2018.eko irailak 19

Nafarroako

Lehendakariak, Uxue Barkosek, Nafarroako Soziologia eta Politologia Elkargoko dekanu berriarekin, Luis Campos Iturralde, eta Dekanordearekin, Marta Lasterra Aznarez, elkartu da gaur goizean.

Berriki Elkargoak zuzendaritzako kide berriak izandatzearen harira egin da topaketa. Aldaketak Elkargoak

azken hilabeteotan egin duen parte hartze prozesu eta barne mailan hartutako erabakien ostean burutu da. Bileran Nafarroako soziologoek elkarteari kezka eragiten dieten hainbat gai aztertu dituzte.

Camposek Lehendakariari helarazio dion moduan elkargoan egindako parte hartze prozesuaren baitan helburu nagusien artean jaso dira arlo profesional hauen ezagutzak gizarteari zabaltzea eta elkargoak gizarte mailan zein lan munduan duten presentzia garrantzitsua ikustaraztea. Gainera, Elkargotik soziologia eta politologiarekin lotutako ekintzak burutzen dituzten elkarteekin elkarlana bultzatzen ari dira.



Barkos Lehendakaria, Campos eta Lasterra Elkargoko kideekin.